

GRADUKO TITULUEN PRACTICUM I. LEHEN ETA HAUR HEZKUNTZA

1. PRACTICUM I-EN ARAUDIA

1. Practicum I (9 kreditu Lehen Hezkuntzan, 8 Haur Hezkuntzan) enborreko eta derrigorrezko irakasgaia da, irakaskuntza arautuko ikastetxe batean egiten dena (publiko zein pribatua), 150 orduan: 5 astean banatuta, goizez eta arratsaldean.

2. Practicum, hain zuzen, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan egin ahal izango da; sekula ez DBHn.

3. Ezinbestekoa izango da 150 ordu egitea, irakasgaia egindakotzat jotzeko. Horregatik, adierazitako epean (5 aste) irakasle/tutoreak ez baditu finkatutako 150 orduak ematen, ikasleak beste irakasleren batekin osatu beharko ditu falta zaizkion orduak.

4. NAHITAEZKOA izango da praktiketara joatea. Agertu ezean, jakinarazpena eta egiaztagiria aurkeztu beharko zaizkie ikastetxeari eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreari.

5. Praktiketara dabilen ikasle bakoitzak Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutore bana izango du esleituta.

6. Praktiketako egonaldiaren aurretik, 8 orduko prestakuntza egingo da Hezkuntza eta Kirol Fakultatean. Era berean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutoreak 2 orduko iraupeneko 3 mintegitara dei egingo die bere ikasleei.

7. Practicumaren amaieran, **ikasleak norbanakoaren memoria bat aurkeztu** beharko du; eta bertan, **praktiketan izandako esperientziaren berri** eman beharko du.

8. Ezinbestekoa da adierazitako baldintzak errespetatzea (egutegia, ordutegia eta bestelakoak). ZEINAHI ALDAKETA EGIN NAHI IZANEZ GERO, IDATZIZ EGIN BEHARKO DA ESKAERA, ETA PRAKTIKA BATZORDEAK ONARTU EGIN BEHARKO DU.

9. Esleitutako plazari uko egitekotan, ikasleak Praktiketako Dekanordetzan horren berri eman beharko du.

2. PRACTICUM I. HELBURUAK ETA GAITASUNAK

Helburuak

Practicum I-en funtsezko helburua, hain zuzen, ikasleek ikastetxearekin lehenengo harremana finkatzea eta **behaketa**-lan orokor bat egitea da. Horretarako, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean ikasitako ezagutzak txertatu beharko dituzte, ikasgelako aniztasunari, eskolari eta beronen gizarte-inguruneari egokituta. Gainera, berebiziko arreta eskaini beharko diote **genero-tratamenduari**. Oso garrantzitsua da ikasleak behaketarako, informazioa

biltzeko, eta datuak aztertu eta interpretatzeko moduak eta teknikak ezagutzea; eta bide beretik, jarrera positiboa eta lankidetzan jarduteko, taldean lan egiteko eta lankideekin harreman onerako aurrez aurretiko jarrera erakutsi beharko du beti.

Gaitasunak

1. Gelaren eta bertako kudeaketaren ezagutza praktikoa hartzea.
2. Gelan elkar eragiteko eta komunikatzeko dauden prozesuak behatzea bertan giro egoki bati sortzeko asmoz.
3. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko aldagai nagusiak identifikatzea.

3. EBALUAZIOA

- **Praktiken kalifikazioa, hain zuzen, honako hauen emaitza izango da:**
 - Irakasle/tutorearen balorazioa (notaren %30).
 - Hezkuntza eta Kirol Fakultateko tutorearen balorazioa, hauetan oinarrituta:
 - Praktiketako txostena (%40).
 - Ikasleak mintegietan eta aldez aurretiko prestakuntzan egindako jardueran (%30).
 - **Ezinbestekoa da bi zatiak gainditzea**

Praktikak (ikastetxea, egonaldia eta memoria) egindako ikasturterako soilik balio dute.

Praktiketan GUTXIEGI kalifikazioa jarriko da honako kasu hauetan:

- **“Gutxiegia” txostena, lehenengo deialdian:**
 - Gutxiegia nota jarriko zaio, eta beste txosten bat egin beharko du. Ikastetxeko nota baliagarria izango da praktika-denboraldia egin den ikasturteari dagozkion deialdietarako.
- **“Gutxiegia” txostena, bigarren deialdian:**
 - Berriz egin behar dira praktikak, eta baita beste txosten bat ere. Ikastetxearen nota ez da gordeko ikasturte batetik bestera.
- **“Gutxiegia”, ikastetxeko irakaskuntza-praktiketan:**
 - Berriz egin behar dira praktikak, eta baita beste txosten bat ere.
- **“Gutxiegia”, ikasleak mintegietan eta aldez aurretiko prestakuntzan egindako jardueran:**
 - Berriz egin behar dira praktikak, eta baita beste txosten bat ere.
- **Frogatu gabeko bi hutsegite:**

- Hurrengo ikasturtean, praktikak errepikatu beharko dira.

Praktiketako txostenak Idazkaritzan baino ezingo dira aurkeztu, eta hain justu, horretarako finkatutako egunean. Hala egin ezean, EZ AURKEZTUA kalifikazioa jarriko zaio ikasleari.

Oharra: Ikastetxeko egonaldia egiten den ikasturtean baino ez da izango baliagarria. Txostena gainditu ezean edo adierazitako egunetan aurkeztu ezean, berriro egin beharko da ikastetxeko egonaldia.

4. PRACTICUM I BALIOZKOTZEA

1. Practicum I-eko IRAKASGAI OSOA baliozkotuko da, honako kasu hauetan:
 - 1.a. Irakasle-ikasketetako Diploma izanez gero.
 - 1.b. Azken hiru urteetan Lehen Hezkuntzan edo Haur Hezkuntzan irakasle-eskarmentua izatea: urte erdi lanaldi osoan edo urtebete lanaldi erdian, gutxienez.
2. EGONALDIA SOILIK baliozkotuko da (gainerako lanak egiteko geratuko dira, beraz), honako kasu hauetan:
 - 2.a. Practicuma egin bitartean, Haur Hezkuntzan edo Lehen Hezkuntzan lanaldi osoan lanean arituz gero.